## ZAMORAKO ESPETXETIK

Espainiako ertz baten
han dago Zamora
basamortu hoberik
nunbait izango da,
ez mendi ta ez itsaso
ez belar ez lora
hementxe bizi behar
hainbeste denbora
hain maite dugun
Euskal-Herritik kanpora.

Ilunpe honetan bizi
gara erdi hilak
ondo itxirik dagoz
ate ta zerraiak
inguruan polizi
ta guarda zibilak
batzuk pistolak eta
besteak fusilak
galtzeko harriskurik
ez dago mutilak.

Sabela hutsik eta
loturik mingana
goitik behera zigorra
txakurrak bait gina
hola azaltzen zaigu
espetxe zikina
oraindikan burutik
sano gagoz baina
ba dira motibuak
zoratzeko haina.

Deskuidoz inork ezer
egingo balu oker
gela ilun zahar baten
sartzen dute laster
berrogei egun hantxe
nahiz eta barruak ler
ez ohe ta ez aulki
ez mahai ta ez ezer
arratoiak hobeto
dira mila bider.

Nahizta mila gizonek
izan gure kargu
Madridera jo behar
ezer nahi ba dugu
handik berriz ezetza
aurretik dakigu
gorrota gaitue
alperrik erregu
halakoxe akerren
eskuan gagoz gu.

Ilunpean dagoenak
maite du argia
baita egarri denak
ere ur garbia
noizbait hautsiko al da
gure uztarria
azia sortzen denez
lurpean jarria
kartzelan erneko da
EUSKADI berria.

*Hitzak: Xabier Amuriza. Airea: Maite Idirin.*

## MOSEN BERNAT ETXEPARE

*Hitzak: Bernat Etxepare. Airea: J.M.Arrizabalaga.*

Mosen Bernat, jakin bahu gauza nola jinen zen,
Bearnora gabetarik egon ahal hintzanden!

Heldu behar duien gauzan ezta eskapatzerik.
Nik ogenik ez nuiela hongigitez bertzerik,
bidegabek haritu nu bide ez nuien lekutik;
erregeri gaizki saldu gertuz ogen gaberik.

Jaungoikoa, orai dizit egiteko handia,
hiri honetan eriotzez hiltzen duzu jendia.
Gatibutan hil enadin gizon ogengabia,
osorik, otor, jalgiteko Zuk idazu bidia,
izterbegiak eztakidan gibeletik irria,
"Ogenburu zuian eta han galdu dik bizia".

Libertatia nola baita gauzetako hobena,
Gatibutan egoitia hala pena gaitzena.
Ni bezala eztadila, otoi, nehor engana,
Ez etare hitz orotan fida ere gizona,
Jaungoikoa, Zuk begira niri ere zuzena.

## UMEZURTZA.

*Hitzak eta Airea: Bittor egurrola.*

Ni ume zurtza naiz,
nere ama hil dute
aita giltzatuta.

Nere lur maite ez da nere lur maitea
kapitalismo zurgatzaile eta herri gabeko
elizagandik diplomazia larregi
gizartea indarra eta gezurra.

Nun dago nere Euskalerri maitea
kapital eta erdikoikeriz zapalduta
kartzelaz eta desterruz pagatuta
elkartu ala ito egingo gara.

Euskal mesias goitik ez da etorriko
amets gozoak amets hutsak baino ez dira
gu herritarrok egunero lanera
gu benetako Euskaldun mesias gara.

Ama berpiztuko da
Aita askatuko da
Izar bat...

## AITAREN ETXEA

*Hitzak: G.Aresti. Airea: J.M.Arrizabalaga.*

Nere aitaren etxea
defendituko dut.
Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
defenditu eginen dut
nere aitaren etxea.
Galduko dituk
aziendak
soloak,
pinudiak;
dalduko ditut
korrituak,
errentak,
interesak,
baina nere aitaren etxea
defendituko dut.
Harmak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut
nere aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut
nere aitaren etxea;
besorik gabe,
bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nere aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nera arima galduko da,
nere askazia galduko da;
baina nere aitaren etxeak
iraunen du
zutik.

## HERRI MINA.

*Hitzak eta Airea: Juan Ganborena.*

Zenbat egun eta zenbat une
urrutiari so igaroak
enarak ere itzuli dira
eta arrosak lora bihurtu.
Errekatxoak alai abesten
zerua urdin zilar jantzian
urtzen doa elurra mendian
eta ni herritik urrutian.

Bainan esan bezala ez zatoz
agian galdu zarelako ote,
eta kanpaien oihartzunak
goizero pozkiro dariote.
Ilusioak itzartzekoan
gora bihotzak esaten dute
gora gora mendietaraino
agian herrira iritxiko.

Arratsa estaltzen doanean
eta oroit-mina inguratzen
zure presentziaren lilura
nere bihotzaren sakonean.
Hain firmo da pizten non diot
oraino maitatzen zaituztela
eta mendia dut eskertuko
Herria bai nuen ahaztuko.

Bizitza, ordea, estuna da
amodio eta gozo gabe
baina paisajea beti eder
bizitzaz beterik eta ixil.
Itsas sakoneko leize gisa
mundu hasera eta bukaera,
guzia menditik dut ikusten,
Herria ezik oro somatzen.

Hain bakarti bilakatu naiz
non zure imajina dut galdu
fite nere bihotz zauritua
igaroaz bai da sendatuko
eta roimenetik galduko
amorezko historia oro
menditik ez ditezela bazter
Herriko ilusioak laster.

Agur usotxo hegalariak
nork lezazken gisako hegoak
kantu oihartzuna har zazute
itzul aberrira, laretara,
ate atzean gordea dedila
ilusio hila ehortzia
ez naiz orain menditik jetsiko
Agur Herria, agur betiko.

## BAKOITZAK BERE.

*Hitzak: Jokin Apalategi. Airea: Maite Idirin.*

Egun-senti bakoitzak bere eguzkia,
laino bakoitzak bere euriaidia,
Herri bakoitzak bere birjaiotza,
Euskal Herriak bere iraultza.

Iraultza bakoitzak bere bidea,
larrosa bakoitzak bere lorea,
erreka bakoitzak bere udaldia,
Euskal Herriak bere autonomia.

Autonomia bakoitzak bere helburua,
landara bakoitzak bere fruitua,
ama bakoitzak bere maitasuna,
Euskal Herriak bere askatasuna.

Askatasun bakoitzak bere lokarria,
gau bakoitzak bere ilargia,
abere bakoitzak bere janaria,
Euskal Herriak bere langileria.

## GIZONEN PAUSOAK.

*Hitzak: Eustakio Mendizabal. Airea: Maite Idirin.*

Gizonen pausoak itsasora
dijoazen irak dira...
bizitzaren gurpilak garamaz
ilunpetako hobira,
argia gautzen eta bizia
finitzen den ur haundira.

Egun-xintak gaua dakar,
biziaren gau gordina!
Bainan heriotz guziak
ez dute erran nahi berdina.

Goiz-ihintzak sortutako lorea
arratsean hiluzear dago...
Hala, gu ere herio-segak
denok gaitu eramango...
Bainan heriotz batzuk ditugu
besteak baino pisuago.

Herri-interesengatik hiltzeak
mendien pisua dauka,
bainan fazisten morroi bizi ta
zapaltzailentzat hiltzea
xorinoen luma grisa baino
pisu gutiagokoa da.

Ideal gabe morroi hiltzeak
ez du deus ere balio...
Herriagatik hil denak aldia
bizitzari argi dagio...
Ur guziak ez dira gaziak,
herio denak ez herio.

## NEKAZARIA.

*Hitzak: Joxe Azurmendi. Airea: Maite Idirin.*

Nekazaria
nere hitza
zure haitzur kolpea da.
AMA lurra hil da,
ez da jo kanpairik.
Hiltzen utzi dute
AMA.
Penaz hil da.
Ez da jo kanpairik.
Nekazariak
galtzen doaz bizitza,
galtzen ardiek
ilematazak bezala,
harantzetan,
andu, hesi;
bideetan;
eguzki antzigarretan.
Esperantzazko zarpazar
mantartu,
pusketaka
doaz galtzen bizitza.
Nekazaria
nere hitza
zure haitzur kolpea da.
AMA lurra hil da
ez da jo kanpairik.
Hiltzen utzi dute
AMA.
Penaz hil·da.
Es da jo kanpairik.
Ama lurra hil da.
Hiltzen utzi dute.
Ez da jo kanpairik.

## EUSKARA

*Hitzak: Bernat Etxepare. Airea: J.M.Arrizabalaga.*

Garaziko herria
benedika dadila,
euskarari eman dio,
behar duien tornuia.

Euskara, jalgi hadi plazara !

Bertze jendek uste zuten,
ezin eskriba zateien.
Orai dute forogatu
enganatu zirela.

Euskara, jalgi hadi mundura !

Lengoaietan ohi hintzan
estimatze gutitan.
Orai aldiz hik behar duk,
Ohoria orotan !